

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Guraso gehienek D eta B ereduak aukeratu dituzte eskolaurrean

Azken urteetako joeraren ildotik, aurten ere guraso gehienek B (hizkuntza bietan irakasten da) eta D (dena euskaraz irakasten da, gaztelera ikasgaia izanik) ereduetan matrikulatu dituzte euren umeak ikasturte honetarako. Hauxe da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako datuetatik atera daitekeen ondorioetako bat. Mezua argia da: umeak eskolara bidaltzen dituzten gurasoek geroz eta gehiago irakaskuntza euskaldun eta elebidunaren apustua egiten dute. Horrela, Euskal Autonomi Elkartean ikasle berrien lauetik hiru (%73a) aipatutako ereduetan matrikulatu da. Gipuzkoan ia denak (%94a),

Bizkaian hirutik bi (%65a) eta, azkenik, Araban bostetik hiru (%59a).

Irakaskuntza ez unibertsitaria bere osotasunean hartuz gero, berriz, A eredu (dena gaztelera irakasten da, euskara ikasgaia izanik) da oraindik nagusi (%57a), D (%24a) eta B (%18a) eredu ondoan.

A eredu dela eta, HPINek eredu hori hobetu beharra azpimarratu du, beti ere aurretiaz emaniko proposamenen arabera.

Aurten iaz baino 16.000 ikasle gutxiago dira EAEko ikasgeletan. Matrikulazioaren %45a sare publikoan egin da, %40a pribatuan eta %15a ikastoletan.



Herri agintek eta UZEIk hitzarmena sinatu dute

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lau urterako hitzarmena sinatu berri dute Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxearekin, UZEIrekin alegia.

Hitzarmen honen bidez, herri agintek UZEIren finantzaketan parte hartuko dute. Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzaren %75a emango du, Nafarroako Gobernuak % 12,5a eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beste horrenbeste. Aurten 50.378.200 pezeta emango dizkiote UZEIri. UZEIk, berriz, lan konpromezu zehatzak hartu ditu: Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua prestatzeko 20.000 forma bateratuko hitz zerrenda osatzea eta terminologia alorreko hainbat lan egitea, nagusiki.

92/93 ESKOLAURREKO DATUAK EHUNEKOTAN

Ereduak	A	B	D
EAE	25,6	34,82	38,62
Araba	40,89	49,32	9,77
Bizkaia	33,86	28,12	36,88
Gipuzkoa	4,58	39,64	54,69

Xabier Erdozia, euskara lan munduan

Euskararen Aholku Batzordean duen egitekorik nagusia euskara lan munduan gaiari zuzenduta dago.

Orain 56 urte Donostian jaioa, azken hogeita sei urteak Arrasaten igaro ditu, baina berba egiterakoan Lekeitioko doinua nabari zaio.

Etxean giro erabat euskalduna jaso zuen, baina euskaltzaletu Saturrarango apaiztegian egin zen. Oso garrantzitsutzat jotzen ditu urte haiek, "gizon eta euskaldun moduan hazi gintuzten eta".

Hantxe hasi zen Txomin Agirrerren idazlanak eta irakurtzen eta gaur egun barnean sentitzen duen erlijioa bizitzen.

Futboleko munduko txapelduna izan zen Alemanian Espainiako gazte selekzioan. Lehen dibisioan ere jokatu zuen Alavesen.

Zientzia Ekonomikoetan lizentziatu

ostean On Jose Maria Arizmendiari eta ezagutu zuen eta hark sortutako kooperatibetan hasi zen lanean. MCC Korporazioko Kontseilu Orokorreko idazkari nagusia da.



Xabier Erdozia

Xabierren ustez, enpresa hizkuntza izateko ahalmena ikusten dion arren, traba gogorrek gaituzten beharko ditu euskarak lan munduan. Horregatik, zenbait gauzatan poliki joan beharko dela uste du. Antzuolako bi enpresatan egiten ari diren esperientziak kontutan hartzekoak

izango dira.

Euskaldunon koherentzia faltak asaldatzen du. Ezinezkoa zirudien ikastolen mugimendua sortzeko gai izan eta gero, bestelako arloetan ia erabat baztertu egiten dugulako euskara. Hala ere baikor ikusten du geroa, gazteak hobeto prestatuta datoz eta.

◆ Gipuzkoako Foru Aldundiak 694 milioi pezeta emango ditu aurten euskara bultzatzeko. Hala nola esparru hauetarako: administrazioko langileen hizkuntza prestakuntza, udalerrri mailako aldizkarigintza, argitaletxeen oinegotura, irabaz asmorik gabeko elkarteak...

◆ 523 ikaslek hartu dute parte Arabako IKA euskaltegi sareak udan zehar antolatu dituen ikastaroetan. Iazko datuekin alderatuz gero, barnetegietan egindako ikastaro trinkoen matrikulazioa %25 igo da.

◆ Europako Kontseiluak gonbidatuta, M. Karmen Garmendia eta Xabier Aizpurua, HPINeko idazkari nagusia eta kabinete teknikoaren arduraduna, Rigan, Letoniako hiriburuan, izan dira hizkuntza politikaz eraturako ihardunaldietan aditu moduan parte hartzen.

Euskara aurrera.

Nafarroako eskualde euskalduneko udalek ume euskaldunen gurasoak euskalduntzeko edota alfabetatzeko kanpaina eratu dute. Helburua familia euskaldunetan euskararen transmisioa segurtatzea da. Horretarako gurasoak kontzientziatu eta trebatzea nahi da. AEK eta IKA euskaltegi sareek parte hartuko dute. Nafarroako Gobernuak 600.000 PTA. eman ditu.

Euskal poesia Italian.

Milango *Poesia aldizkariak* Euskal Herriko poesia bilduma argitaratu du orain dela gutxi. Emilio Cocok zuzendu duen edizio honetan euskaraz eta gaztelaniaz idazten duten poeten (G. Aresti, B. Atxaga, C. Aurtenetxe, B. Gandiaga, P. González de Langarika, J. Juaristi, X. Lete, J. Mirande eta Patziku Perurena) lanak daude, jatorrizko hizkuntzan eta italieraz paratuak.

Donostia, hiri zabala.

S. Sebastian, ciudad abierta, 1989an Felix Marañak prestatutako Gabriel Celayaren antologia poetikoaren euskal bertsioa argitaratu berri da. Itzulpena Felipe Juaristik egin du. Argitalpena Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak atera dute. Liburua Celayaren 65 poema eta Sigfrido Kochen 100 argazkiz osatua dago.

European Science

Foundation elkarteak bere bigarren Biltzar Nagusia antolatu du Donostiako Miramar jauregian, irailaren 2tik 5era bitartean. Gaia hizkuntzen tipologia izan da. Europa osoko hizkuntzalariek esku hartu dute hitzaldi eta eztabaidetan. Hizlarien artean, Juan Ortiz de Urbina, Karmele Rotaetxe eta J.I. Hualde euskal hizkuntzalariek izan dira.

Euskal Gramatika, guztion euskararen gramatika

1980an izendatu zuen Euskaltzaindiak Gramatika batzordea euskal gramatika lantzeko. Aurretik baziren euskal gramatikak, baina euskalkien gainean taxututakoak; guztion euskararen gramatikaren premia nabarmena zen, ordea. "Euskal gramatika arauemaile baten zain egon direnak izan ditugu gogoan batipat, bai eta egungo euskara batua gramatikalki finkatzeko arau multzoaren zain dauden irakasle, ikasle, idazle eta ofizio orotako euskaldunak", aitortu zuten egileek.

Hasierako Gramatika batzordea hamaika lagunek osatu zuten, P. Lafitte batzordeburu zela. Hil zenean P. Altunak hartu zuen zuzendaritza. 1985ean EGLU-1 argitaratu zuten, perpaus bakunari

eskainia. 1987an, EGLU-1en eranskina, lehena osatzeko. 1989an EGLU-2, aditza aztertuz eta 1990ean EGLU-3, lokailuen azterketarekin.

Liburu hauen oinarrian dauden testuak Orotariko Euskal Hiztegirako erabili den corpusetik atereak dira ia gehienak. Corpus hori modu erosoagoan erabili ahal izateko, Eusko

Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen (EJIE) baliabide informatikoak erabili dituzte.

Asmoak behar bezala betez gero, aurtengo Durangoko Liburu Azokan EGLU-4, juntagailuei eskainitako liburukia argitaratuko da. EGLU-5, menderagailuei buruzkoa, beranduago aterako da, bi liburukitan seguruenik.



Udaletako Hizkuntza Politikarako Proposamena

Hogei orrialdeko txosten hau Euskararen Aholku Batzordeak argitaratu zuen 1991n, *Aholku Bildumaren* bigarren liburukian. Txostenak Euskal Herriko udaletako hizkuntza normalkuntzari buruzko irizpideak aztertu eta horren arabera hizkuntza politika erabaki ahal izateko gomendioak luzatzen ditu.



Koldo Amestoy, Iparraldeko kontalariak *Hitza-Pitz* ipuin festaren laugarren edizioa antolatu du Hazparden, Lapurdin. Mundu guztiko kontalariak bildu ohi dira festak dirauen lau egunetan zehar. Aurtengo edizioak Totema izan du gai nagusi.

Richard Y. Bourhis, Montrealgo (Quebec) Unibertsitateko irakasleak parte hartuko du azaroan hizkuntza politikari buruz antolatu dituen ihardunaldietan. Psikologia Soziala irakasteaz gain, Bourhisek Quebec, Gales, Belgika, Ingalaterra eta Suitzako hizkuntza gatazkak aztertu ditu.

Xabier Etxague, 34, nafarrak Apto cum laudem epaia lortu du Euskal Herriko Unibertsitatean Pello Aierberen zuzendaritzapean egin duen "Nafarroako D ereduko 8. mailako ikasleen euskara errendimendua" doktorego tesian.

EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Wellingtono Dukea, 2 01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

 Helbidea:

 Herria:
 Kodea:
 Probintzia:.....
 Tfnoa:.....

Galdezka

Euskara eta lana

G. Nola uztartu euskara eta lan mundua?

E. Euskara lan munduan sartzearen kontua oso zehatz aztertu behar da. Ere mu euskaldunetako lehen eta hirugarren arloetan, batipat, sustatu eta bultzatu behar da euskara. Enpresa munduari dagokionez, gerta liteke arraz zaila iruditzea hor sartu ahal izatea, ekonomiaren lotura eta arlo horren nazioarteko jokabidea dela eta, baina gizarte barruko eta pertsonen arteko harremanen, aisiaren, zerbitzuen eta irudiaren ikuspuntutik begiratuta, mugatuak badira ere, duela urte batzuk somatu ere egiten ez genituen arloak izan ditzakegu langai. Zerbitzuen arloa hartzen badugu, gaztelera baino ez eta hori bakarrik erabiltzera garamatzen joera eten egin behar da.

M. Karmen Garmendia.
Hizkuntza Politikarako
Idazkari Nagusia

Noiz letra larriak, noiz xeheak

Hona hemen Euskaltzaindiaren azken gomendioak letra larriak, maiuskulak alegia, eta xeheak edo minuskulak noiz erabili erabakitzeko.

Letra larriak noiz:

1. Testu baten hasiera, puntuaren ondoren eta bi puntuen ondoren ere, aipamen zuzena egiten bada bakarrik.
2. Izen ofizial osoak.
3. Izen bereziak: pertsona izenak, ezizenak barne: Koldo...
4. Erljio jaiak: Eguberri...
5. Estatu, herri, herrialde eta administrazio entitateak: Orio...
6. Entzute handiko egunak.
7. Mitologia jainkoen izenak: Mari.
8. Sariak: Nobel saria...
9. Errege eta Erreginareen izenak.
10. Egoitza ofizialen izenak.
11. Planeta, izar eta konstelazioen izenak: Martitz...
12. Erreferentzi kardinalak.

13. Zientzia eta ikasgaien izenak: Filologia, Literatura...

14. Estatuaren botereen izenak: Parlamentua, Senatua...

15. Erakundeetan sortzen diren batzordeen izen ofizialak: Gramatika batzordea...

16. Liburuen izenburuetan hitz nagusiak: Orotariko Euskal Hiztegia...

17. Sainduen izenak: San Juan...

Letra xeheak noiz: aipatu ez diren gainerako testuinguruetan:

1. Urtao, hilabete eta astegunak.
2. Kargu ofizial eta akademikoak: euskaltzaina, zuzendaria, ministroa...
3. Tituluak: Aiako markesa...
4. Geografi-izenak: Bizkaiko itsasoa, Axularren plaza.

Gomendio hauek Euskaltzaindiaren Euskera aldizkariako 36. liburukitik jaso dira.

✓ Kontutan hartzeko

- **Xirrixta.** Urritik aurrera Ipar Euskal Herriko Euskal Kultur Erakundeak 24 orrialdeko haur aldizkaria kaleratuko du erabat euskaraz. Sei hilabeteko harpidetzak 2.000 pezeta balio du. Urtebetekoak 4.000. Tfnoa.: (07.33) 59 93 25 25.
- **Hezkuntza Eleaniztasunaz.** Azaroaren 5ean eta 6an Gaztelueta Fundazioak

antolatuta eta Gasteizko Europa Biltzar etxean, *Hezkuntza Eleaniztasunari buruzko I. Nazioarteko Jardunaldiak* izango dira. Tfnoa: (945) 16 11 04.

- **Soziolinguistika ikastaroa.** Donostiako Bagera taldeak eratuta, urriaren 13tik azaroaren 5era izango da. HPIN, Siadeco eta elkarte askoren parte hartzeaz. Tfnoa: (943) 45 71 07.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA